

Eraikinaren bizitza



ULA IRURETAGOIENA

Hainbatetan esan izan didate arkitektoen lanaren gauzarik indartsuena dela ekoizten duguna betikotu egiten dela. Eraikinaren betikotasunak gizaikiaren presentzia tenporala gainditzen duela eta geroko etorkizunean iraunkor egingo gaituela. Eta liburu batekin gertatzen ez den bezala, materialtasunak beste sendotasun bat gaineratzen dio hilkortasun ezari. Hilezkor bilakatzen gara egin dugun eraikinaren bizitzaren bidez. Espiritualitate kurioso, arkitekturak zenbaitzuei eskaintzen diena.

Hilezkortasunean pentsatzen duteneko urruti, Europak ezarri du eraikinaren gutxieneko bizi-iraupena 50 urtetakoa dela, kasik giza bizitza zikloaren erdia. Baina Japoniako kulturaren 25 urtetan ezarria dago, belaunaldi aldaketa bat gertatzen deneko denbora-tartea, ulertzen baita eraikina beste materia bizien kategorian berean dagoela: iraunkortasunik ez duen entitate bat. Mendebaldeko bizi ikusmoldean 50 urtetako bizi zikloa laburra egiten zaigun arren, zehaztapen-denboraren arrazoia da irudikagarria den eraikinaren heriotza diseinatu behar dela eraikinaren bizi-zikloaren parte bezala. Hau da, pentsatu beharko da eraikitzen denaren desagerpen bide posible bat (desmantelatu, piezetan banatu eta birziklatu...). Eta ariketa horren helburua oso pragmatikoa da: eraikinaren bizitzako luzapenak jaurti ditzakeen CO2 isurien kalkulua egitea.

Eraikin askoren patuan bizi-ziklo asko ematen dira, gizakion bizitzaren arabera erabilera-, itxura-, eskakizun-teknikoen aldaketak. 50 urteko epean irudikaezina diren bukaera eta hasiera zikloak emango dira, hainbeste faktorek eragiten dute eta! Eraikinean biziko direnen bizitza partikularren gertakizunak, klimaren ekintzak, mantentze ezarenak, gizartearen espazio ulermenak, lehentasun kulturalak, politika berriak... Aurreikuspen bat egin nahi izatea eraikinaren bizitzaren autofikzio ahalegin bat iruditzen zait, literaturako ariketa bat, arkitekturako baina gehiago. Transzendentalitate eta pragmatikotasunaren erdibidean. ●



Mikrofonoak antzokietan

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Eskatu txanda eta egingo dugu bat zurekin", esan dio estudioetatik ari den esatari prestu eta animatuak Bilboko kaleetan dabilen berriemaile gazteari. Aurkezlea entzuleei zuzendu zaie segituan. "Bien bitartean, Iruñera goaz...". Han zabaldu dute linea. Hirugarren konexioa bost minutu pasatxoan.

A zer nolako zarata sartzen den Nafarroa Arenako korridoretatik. Ilara luzeak egin dituela jendeak, hala kontatu du berriemaileak, eguerdi partean eman duela buelta bat Alde Zaharretik eta Nabarrera inguruak jendez leporaino zeudela, aldarre onean, Duguna dantza taldekoekin kalejira hasi baino minutu gutxi lehenago... "Gaur jendetza Iruñean", laburbildu du kazetariak. "Eta ez alferrik. Mitoarora berpiztea ez da txori-kaka". 2025eko urtarrilean egindako triskantza historikoaren zortzigarren urtemuga, infinitu astronomoaren zenbakia, horixe da gaur berrospatuko dutena Nafarroa Arenan. Eta han daude, han dira euskarazko irrati telebista publikoaren kamera eta mikrofonoak, eta han bezalaxe daude Bilbon, Bira Kulturguneko bertso-musikatu aldi baten berri ematen; Hondarribian ere bai, Psilocybenean, Bidasoaldeko rock taldeen jaialdian; eta Baionako Michel Portalen, Axut kolektiboaren obra berriaren estreinaldian.

Agurtzane Intxaurreaga eta Mikel Aylloni duela ez hainbeste entzun nien Euskadi Irratian: imajina dezagun komunikabide publiko nazional bat, asteburuetakoa arratsalde luzeetan, bi futbol estadio, eskubaloi kantxa bat eta frontoi batekin konexioak egiten aritu beharrean, antzoki banatan ipintzen ditugula mobilizatutako berriemaile horiek, hango berri zuzenean eta lasai ederrean ematen, jendearekin hitz egiten, prentsaurrekoak eta agerraldiak lineara entxufatzen... eta futbolaz egiten dituzten bezainbesteko analisiak egiten kontzertuez eta antzerki-obrez.

Horra joan zitzaidan burua Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lehendakari Imanol Pradales aditu nuenean esanez "kalitate demokratikoa hobetzeko" konpromisoa hartuko duela gobernuak, zertarako eta "herri gisa aurrera egiteko".

Niri, hori entzundakoan, garunaren zoko bateko ilusioak zera esan zidan: herri gisa aurrera egiteko, kultura erdigunean ipini behar dela. Frontoietakoa edota txirrindularitzako jarraipen ederrak betirako galarazi gabe, horiek ere herria egin egiten baitute... baina nire ilusioak ez du nahi lehiako kirolak herririk egiterik. Herriak hizkuntza behar baitu, eta, Ximun Fuchsi berriki entzun diodan moduan, "kultura gaixo bada, hizkuntza ezin da bizi". Gaixo dagoenak, inoiz baino gehiago, zaintza behar izaten du. ●